

Cristóbal Balenciaga Museoaren bosgarren urteurrena

Cristóbal Balenciaga Museoaren bosgarren urteurrena da gaur. Museoak bost urteon balantzea egin du, eta museoaren etorkizuneko aurreikuspenak iragarri ditu

Getaria, 2016ko ekainaren 7a.- «Museo gaztea gara; oraindik esperimentatzen ari gara, bisitariengandik ikasten, kultura eta turismoko beste eragile batzuekin lankidetzaz-ukerak bilatzen eta, erakusketa- eta jardueraprogramazioa helburu argi batekin finkatzen: Cristóbal Balenciagak berak eta haren lanak modaren eta goi-mailako jostuntzaren munduan zehazki eta arte-sorkuntzan oro har izan duten garrantzia sustatu, zabaldu eta indartzea», adierazi du museoaren zuzendari Miren Vivesek.

Inauguratu dutenetik, 2011ko ekainaren 7tik, **284.763 bisita** erregistratu dira. Inaugurazioaren efektua igaro osteako urteetan, bisitari kopuruak behera egin zuen poliki-poliki, baina 2014an bisitariak ugartu egin ziren berriro ere, % 6 hain justu, aurreko aldiarekin alderatuta. **2016ko lehen bost hilabeteetan**, joera hori bera berretsi da: iazko datuekin alderatuta, **bisitariak % 25 ugartu dira**. Datu horiengatik eta Cristóbal Balenciagak gure mugen barruan eta haietatik kanpo pizten duen jakin-minagatik (museoak eginiko koprodukzio, erakusketa ibiltari eta maileguetan islatuta) museoaren barruan giro optimista dago.

Museoak iaz abiarazi zuen publikoen azterketak inauguraziotik egindako lana babesten du. Museoaren balorazioa oso positiboa da; hauek dira hoberen baloratutako alderdiak: bisitariari emandako tratua, eraikina, bilduma, museografia. Inkesta egin duten bisitarien % 98k bisita gomendatuko lukete. Jatorriari dagokionez, **% 34 EAetik datoz** (batez ere Gipuzkoatik, % 22), **% 40** beste erkidego batzuetatik (bereziki **Madril, Katalunia eta Nafarroatik**), eta % 26 atzeritik (batez ere Frantziatik, % 19). Nazioarteko bisitarien hazkundea egiaztatu da, Frantziako enbaxadaren leialtasuna sendotu da **eta 25-55 urteko** bisitarien adin-tartea finkatu.

17 erakusketa

Museoak **Cristóbal Balenciagaren lanari buruzko 4 erakusketa espezifiko** egin ditu inaugurazio-erakusketaz gain. Batzuetan kanpoko bildumak museoara gonbidatu ditugu, Jantzien Museoaren bilduma adibidez, eta beste batzuetan koprodukzioan lan egin dugu nazioarteko beste ehunaren museo batzuekin. Horixe gertatu da **«Balenciaga, parpailan barrena»** aldi baterako oraingo erakusketarekin, Cité Internationale de la Dentelle et la Mode de Calais

delakoarekin elkarlanean sortuta. Erakusketa horrek **17.063 bisitari** izan ditu martxoan inauguratu zenetik.

Horrez gain, 11 aldi baterako erakusketa antolatu ditugu modarekin lotuta, eta horietako batzuk Estatuan eta nazioartean ibili dira, «Balenciaga eta zinema» eta «Balenciaga behatu eta pentsatu» erakusketak, adibidez. Halaber, museoko bildumako lanak mundu osoan erakusten dira ehunaren beste museo batzuei eta nazioarteko pinakotekei egindako maileguei esker. Hori horrela, Mexikoko Arte Modernoaren museoko «Cristóbal Balenciaga, el discreto esplendor de la Alta Costura» (*Cristóbal Balenciaga, goi-mailako jostintzaren distira diskretua*) erakusketa nabarmendu beharrekoa da, museoaren lankidetzan nabarmena izan baitu, 8 lan eta 32 argazki maileguan utzi diolako; baita New Yorkeko MET museoko «Manus x Machina» erakusketa ere, museoko bildumaren bi lan dituenak.

«Ondare bihurtzea», bildumaren garrantzia

Ondareari dagokionez, bilduma bera bikoiztu egin da, eta **2.150 pieza** daude jada 2016an (museoak 1.039 zituen inauguratu zen garaian).

Horretaz gain, **azpimarratzekoa da zenbat gordailu bilakatu diren dohaintza, % 5 aurten bakarrik**. Museoak bere proiektuarekiko eta haren etorkizunarekiko konfiantza-seinale modura hartu ditu aldaketa horiek.

«Emaile eta mailegatzaille partikularrei esker ondare sortzen da, zeina zaindu, aztertu eta zabaltzen den, irakatsiz, inspiratuz eta gozaraziz. Horixe da museoaren helburu nagusia, jabeek bakarrik balioren bat ematen zieten jantziak, soinekoak eta orogarririk jasotzea, eta, errespetu osoz, interes eta sarbide publikoko ondare bihurtzea», nabarmendu du zuzendariak.

Ondare hori dibertsifikatu egin da azken urteotan; hala bada, jantziak ez ezik, Frantziako zein Espainiako Balenciaga etxeetako langileen lekukotzak, objektuak eta agiriak zein datu historikoak eta bizipenak ere jasotzen ditu testuingurua ulertzea zein teknikak eta egiten jakitea zaintzea helburu hartuta. Horrek guztiak sortzailea bera eta haren lana ulertzen laguntzen du.

Hezkuntza-programa, erakundearen apustua

Hezkuntzaren arloko museoaren jarduera, hain zuzen, erakundearen apustu sendoenetako bat da. Hezkuntza-programaren **erabiltzaile kopurua handitu da 5 urteotan, ia % 85eko batez besteko hazkundearekin urtean**. Museoa inauguratu zenetik **4.673 pertsona** izan dira askotariko hartzaileentzako museoaren hezkuntza-programazioaren erabiltzaile.

Balenciagaren tailerren egiten jakitearekin zuzenean edo zeharka lotuta dauden irakasleek emandako «transmisioen» eskola magistralak nabarmendu behar ditugu programazio horretan. Zehazki, hauek dira irakasleak: Miguel Elola, Balenciagaren dizipulua, eta semea, eta Javier Martín, DelPozoko modelatzearen arduraduna (hiriburuko EISA tailerreko burua izan zen Felisa Irigoyenen laguntzaile nagusiak izandako Carmen eta Emilia Carrichesekin egin

zituen ikasketak). Horrez gain, ikastaro espezializatuak ere badaude (manikiak egitea, goi-mailako joskintzako brodatua, jantzi eszenikoak eta gainerakoak).

Aisialdiko zein kulturarekin lotutako jardueri dagokienez, «museoak esperimentu pilotu txikiak jarri ditu abian hainbat arlotan zerk funtzionatzen duen eta zerk ez probatzeko. Helburua programazioari eustea da, ahal den heinean hura eskatzen duten publikoetara egokituta», esan du Miren Vivesek. Hala bada, hainbat esperientzia programatu dira, hala nola dantzaz lagundutako bisitaldiak edo «Balenciagaren itsasoa», museora itsasontziz Donostiatik iristeko aukera ematen duen plan turistikokulturala, edota «Formak eta zaporeak», kultura eta gastronomia uztartzen dituen plana.

2016rako programazioa

Museoak aurtengo urterako prestatutako programazioak ardatz komun bat dauka: tradizioan oinarrituta berritzea. Bosgarren urteurren honetan, bi erakusketa, ikastaroak, jardunaldiak eta gau-parteko irekiera berezia izango ditu.

«Balenciaga, parpailaren bidez» erakusketari dagokionez, uztailaren 8an Roberto Etxeberria diseinatzailearen topaketa bat antolatuko da, sorkarrietan materialen duten tratamenduari buruz jarduteko.

Urteko bigarren erakusketa handia urriaren 6an abiaraziko da: «Ikatz eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren herri-jantziei buruzko ikuspegiak». Erakusketa horrek, diziplinarteko elkarrizketaren bidez, Ortiz Echagüe argazkilariaren ikuspegi erromantikoa eta Balenciagaren berrikusketa estetiko eta eraikitzailea aztertuko dituzte elementu beraren inguruan: herri-jantziak. Erakusketak Nafarroako Unibertsitateko Museoak dituen argazkilariaren funtsetako lanak eta Getariako museoko funtsekoak bilduko ditu. Erakusketa horrekin loturik, urrian modarekin lotutako diseinu-ikastaro aurreratu bat eskainiko da Elisa Palominoren eskutik (Londreseko Central Saint Martins etxekoa) eta YOXek koordinatuta. Hain justu, herri-jantziek sormen-iturri gisa dituzten aukerak aztertuko dituzte.

5. urteurreneko programazioa: Gau Irekia

Baina, aurretik, datorren asteburuan, gure museoaren bosgarren urteurrena ospatzeko, 21:00etatik 00:00etara irekiko ditugu ateak, eta aretoak doan bisitatu ahal izango dira eta musika izango da zuzenean. Zehazki, larunbatean, ekainak 11.

Asteburuan, bisita gidatuen eskaintza zabalduko da sarreraren prezioan sartuta, eta igandean familientzako tailer bat izango da, «Planotik bolumenera», Casa del Vacío estudioarekin lankidetzan.

2017rako aurrerapena

Cristóbal Balenciaga museoak gehienbat Cristóbal Balenciagaren enpresadimentsioa, haren figura ekintzaileari lotutakoa, esploratu nahi du 2017an, 100 urte beteko baitira lehen tailerra Donostian ireki zuenetik eta 80 urte etxea Parisen inauguratu zuenetik. Hori horrela, erakusketa monografikoa aurreikusita dago haren bezero fidelenetako bat ardatz hartuta: Bunny Mellon.

Hezkuntzaren eta beste erakunde batzuekiko lankidetzen arloari dagokionez, urtean bitan gauzatuko den programa bat planteatzen du Londresko Central Saint Martins eskolarekin lankidetzan; horren bitartez, bertako ikasleek museoeko erakusketak hartuko dituzte abiapuntu beren ikerketak, gogoetak eta sorkuntzak garatzeko.

Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zuten Getarian, eta moda-sortzaile bati oso-osorik eskainitako munduko lehen museo handia da. Haren helburua hau da: Cristóbal Balenciagak sorkuntza artistikoan oro har eta, bereziki, modaren eta goi-mailako jostuntzaren munduan egindako lana ezagutaraztea eta nabarmentzea.

Museoak Cristóbal Balenciagaren nazioarteko sorkari-bilkura garrantzitsuena gordetzen du, bai osatzen duten piezen kopuru eta kalitateagatik, bai haren hedapen kronologiko handiagatik.

Museoko espazioetan, bildumetako pieza hautatuak erakusteaz gain, modari lotutako aldi baterako erakusketak eta hezkuntza zein aisialdiko jarduerak ere proposatzen dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero:
Cristóbal Balenciaga Museoko komunikazio-bulegoa
Zuriñe Abasolo Izarra
E-posta: Zurine.abasolo@fbalenciaga.com
Tel.: 943 00 47 77 - 647 410 775